

Euskal Autonomia Erkidegoko txikizkako merkataritzaren sektorean, salmentak %3,9 hazi dira 2007ko bigarren hiruhilekoan

Bizkaian %4,7 gehitu dira, batezbestekoaren gainetik; aldiz, Araban (%1,8) eta Gipuzkoan (%3,3) gehikuntza neurrizkoagoa izan da.

Euskal Autonomia Erkidegoko txikizkako merkataritzaren sektoreak salmenta nominalak %3,9an igo ditu 2007ko bigarren hiruhilekoan, aurreko urteko denboraldi beraren aldean, Eustatek emandako datuen arabera. Hazkunde nominal hau, prezioen igoeraren ondorioa kenduta, urte arteko bilakaera-tasa bihurtu da, positiboa hori ere, %2,4koa, termino errealetan.

Urte arteko hazkunde-tasa errealak. Euskal AE

Urtea	Hiruhilekoa	Txikizkakoa	Espezializatua	Ez-espezializ.
2005	II	2,8	2,8	2,8
	III	1,7	2,7	-0,3
	IV	0,4	0,4	0,3
2006	I	4,7	7,1	-0,5
	II	2,2	4,0	-1,6
	III	4,4	7,2	-1,2
	IV	0,4	1,4	-1,7
2007	I	2,9	3,2	2,2
	II	2,4	3,5	0,2

Iturria: EUSTAT

Txikizkako merkataritza espezializatuak salmenta nominalak %4,7an igo zituen 2007ko bigarren hiruhilekoan, 2006ko denboraldi beraren aldean. Hazkunde nominal hau urte arteko bilakaera-tasa bihurtu da, %3,5koa, balio errealetan.

Txikizkako merkataritza espezializatu gabea %2,4 igo zen aurtengo bigarren hiruhilekoan, termino nominaletan. Urte arteko tasa errealaren aldakuntza %0,2koa zen, 2006ko hiruhileko beraren aldean.

Txikizkako merkataritza espezializatuan, urte arteko hazkundeko tasarik handiena bestelako kontsumo ondasunen (kirolak, jolasak, optikak eta liburu-dendak, besteak beste) sektoreari dagokio. %12,4ko hazkunde nominala izan du; termino errealetan, %10,1koa. Pertsonen hornikuntzako ondasunek ere hazkunde nabarmena izan dute; horien hazkundera %3,9koa izan da

termino nominaletan; tasa hori, termino errealetan, %3,7koa da (positiboa hau ere). Etxeko hornikuntzarako produktuen salmentak %0,8 gehitu dira euro arruntetan; termino errealetan, aldiz, %1,4ko beherakada izan da. Bestalde, Elikadurak %1,4ko beherapen nominala izan du baina beherakada %-5,5ekoa izan da termino errealetan.

Lurralde historikoetan, 2007ko bigarren hiruhilekoan, txikizkako sektoreko salmenta nominaletan Bizkaian izan da hazkunderik handiena, %4,7ko urte arteko gehikuntzarekin. Txikizkako merkataritza espezializatuko salmentak %5,5 hazi dira, eta espezializatu gabekoarenak %3,2.

Gipuzkoak tarteko lurralde-bilakaera izan du (%3,3); merkataritza espezializatuko salmentak %5,0 hazi dira eta espezializatu gabekoarenak %0,2.

Arabian izan da txikizkako sektoreko urte arteko salmenten gehikuntzarik txikiena (%1,8), txikizkako merkataritza espezializatuaren gehikuntza %0,7koa eta espezializatu gabekoarena %4,0koa, betiere, urte arteko aldakuntza nominaleko terminoetan.

Txikizkako merkataritza sektorean enpleguaren hazkundera %0,4koa izan da 2007. urteko bigarren hiruhileko honetan. Lurraldeka honelakoa izan da: Bizkaian %0,8 gehitu da eta Araban %0,3, baina Gipuzkoan %0,2 murriztu da. Alabaina, txikizkako merkataritza sektorean langile kopurua %1,0 gehitu da hiru lurralde historikoetan eta aurreko urteko aldi bereko batezbestekoaren aldean: Gipuzkoan %2,8 gehitu da eta Araban %0,5, baina Bizkaian %0,1 murriztu da.

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel:+34-945-01 75 06 Faxe:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp